
Regional Innovation Scoreboard RIS 2021

Bilakaera eta egoera Euskadin
2021eko ekainak 21



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Euskadiren egungo egoera

Regional Innovation Scoreboard 2021ek (RIS 2021) erakusten du Euskadi **berrikuntza-maila handiko** eskualdea dela.

Lehenengo aldiz, Euskadiren errendimendua **EBren* batezbestekoa baino handiagoa** da (103,6 Euskadi vs.100 EB).

Gainera, **Estatuko errendimendu handiena** du. Zehazki, Euskadi da, Madrilgo Erkidegoarekin batera, berrikuntza-maila handia duen autonomia-erkidego bakarra.

Hori dela eta, **Europako Batzordeak Euskadi “bikaintasun-polotzat”** (*pocket of excellence*) **hartzen du**, berrikuntza-maila ertaina duen herrialde batean berrikuntza-maila handiko eskualdea izateagatik.

Euskadiren indargune nagusiak honako hauek dira: batetik, **berrikuntzak inpaktu handia** izatea produktu berrien **salmentan** eta jakintza intentsiboko sektoreetako **enpleguan**, eta, bestetik, **herritar gazteek trebakuntza-maila altua** izatea.

Erronkei helduta, Euskadik **ETE berritzaileen** kopurua handitzeko beharrari eusten dio.

(*) Brexitak eragina izan du EBren batezbestekoaren kalkuluan; izan ere, lehenengo aldiz, baztertu egin da “berrikuntza-maila handiko” herrialde gisa katalogatuta dagoen Erresuma Batua.

Bilakaera



Euskadik berreskuratu egin du berrikuntza-maila handiko eskualdearen kategoria, **kategoria hori osatzen duten adierazleen hobetze orokorrari** esker.

Hobekuntza gertatu da nahiz eta RISen kalkuluan metodologia-aldaketak egin diren.

Zehazki, adierazle sintetikoa osatzen duten adierazleetako batzuk aldatu egin dira, eta, gainera, gogortu egin dira berrikuntza-maila handiko eskualdetzat hartzeko mugak. Aurreko bertsioan, berrikuntza-maila handiko eskualdeen artean egoteko tartearen EBren notaren % 90 eta % 120 artekoa zen. Gaur egun, ordea, % 100 eta % 125 artekoa da.

Euskadi, berrikuntza-maila altuko eskualdea EBn

Europako Batzordeak Euskadi “bikaintasun-polotzat” (*pocket of excellence*) hartzen du, berrikuntza-maila ertaina duen herrialde batean berrikuntza-maila handiko eskualdea izateagatik.




“The most innovative regions are typically in the most innovative countries.”

“Regional 'pockets of excellence' can be identified in several Moderate Innovator countries (Praga in Czechia, Attiki and Kriti in Greece, País Vasco and Comunidad de Madrid in Spain, and Emilia-Romagna in Italy).”


Lehenengo aldiz, Euskadik gainditu egin du EBren batezbestekoa

Zehazki, Euskadi % 103,6an dago EB-27arekiko eta Europako 240 eskualdeen artean 93.a da.



Hezkuntza-maila eta inpaktu handia enplegu eta salmentan

Euskadi eskualde indartsua da gazteen hezkuntza-mailari dagokionez, baita produktu berrien salmentari eta teknologia eta ezagutza intentsiboko sektoreei buruzko adierazleei dagokienez ere. Nolanahi ere, ahula da ETE-en berrikuntzaren arloan.



(1) Zentro Teknologikoak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak enpresen sektorearen barne daude, pribatuak direlako. Aldiz, Europar parekoak diren zentro gehienak Administrazio Publikoen sektorearen barne daude.

(2) Barne hartzen ditu I+G arloko barne-gastua, I+G arloko kanpo-gastua eta beste jarduera berritzaile batzuetako gastua (ingeniaritza, diseinua; marketina; IP kudeaketa; prestakuntza; SW eta datu-baseen garapena; aktibo ukiezinen erosketa eta leasing-a; berrikuntzaren kudeaketa).

Iturria: Europako Batzardea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2021.

Adierazleen hobetze orokorra

Bilakaera positibo horrek datu publikoak dituzten adierazle guztien hobetze orokorraren bultzada jaso du.

RIS 2017
RIS 2019
RIS 2021

RIS adierazlea ¹	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Bilakaera	Iturria
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak ²	60,6	61,5	57,6	56,2	57,3	57,5	59,4	60,8	↑	Eurostat
Bizitza osoko ikaskuntza	13,9	13,6	11,9	12,9	11,7	13,2	12,7	13,0	↓	Eurostat
Sektore publikoak gauzatutako I+G gastua	0,55	0,54	0,53	0,51	0,48	0,48	0,48	E/D	=	Eurostat
Enpresek gauzatutako I+G gastua	1,74	1,62	1,56	1,44	1,46	1,45	1,53	E/D	↑	Eurostat
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko ³	0,20	0,23	0,22	0,22	0,27	E/D	0,29	0,43	↑	Eurostat (CIS)
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, langileko ⁴	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	4,86	5,37	BERRIA	Eurostat (CIS)
Produktuan berritzaileak diren ETEak ⁴	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	19,69	21,03	BERRIA	Eurostat (CIS)
Negozio-prozesuan berritzaileak diren ETEak ⁴	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	27,22	27,72	BERRIA	Eurostat (CIS)
Beste batzuekin elkarlanean ari diren ETE berritzaileak ³	12,96	12,93	14,19	14,28	13,05	E/D	15,13	15,09	↑	Eurostat (CIS)
Enplegua jakintza intentsiboko sektoreetan	45,9	44,6	45,6	44,8	45,8	46,4	46,3	46,8	↑	Eurostat
Enplegua ETE berritzaileetan ⁴	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	E/D	49,7	50,7	BERRIA	Eurostat (CIS)
Produktu berrien salmentak ETEetan ³	8,43	10,23	15,02	14,38	16,46	E/D	9,97	15,09	↓	Eurostat (CIS)

(1) Ez dago informaziorik honako adierazle hauei buruz: produkzio zientifikoa, jabetza intelektuala, jasangarritasuna eta digitalizazioa; izan ere, neurrira egindako ustiapenetatik datoz horiek guztiak.

(2) Handitu egin da aztertutako populazioa. Aurreko edizioetan, aztertutako populazioaren adin tartea 30-34 urtekoa zen. 2021eko RISean, aldiz, 25-34 urte artekoa da. Segida historikoa eguneratu da.

(3) Adierazle hau 2018ko Osloko Eskuliburura egokitu da.

(4) INEtik datorren eta 2018ko Osloko Eskuliburura egokituta dagoen adierazle berria.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2021.

ERANSKINAK



Metodologia-aldaketak 2019ko RISaren aldean (I)

RIS 2021ean handitu egin da adierazle kopurua 17tik 21era. Aldaketa gehienak 2018ko Osloko Eskuliburura egokitzeko beharrak eta digitalizazioarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten adierazleak txertatzeak eragin ditu.

Kategoria	Adierazleak	Iruzkina
Esparru-baldintzak	Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	Adin tartea 25-34 urtera zabaldu da EISera egokitzeko (lehen 30-34)
	Bizitza osoko ikaskuntza	
	Nazioarteko elkarlanean landutako argitalpen zientifikoak	
	Gehien aipatzen diren argitalpen zientifikoak	
Inbertsioak	Gaitasun digitalak dituzten pertsonak	Berria.
	Sektore publikoak gauzatutako I+G gastua	
	Enpresek gauzatutako I+G gastua	
	ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
	ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, langileko	Berria. 2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
Jarduera berritzaileak	IKT arloko langile adituak	Berria.
	Produktuan berritzaileak diren ETEak	Bi adierazle ordezkatzan dituzte: produktu/prozesuan berritzaileak diren ETEak eta marketinean/antolaketan berritzaileak diren ETEak. 2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
	Negozio-prozesuan berritzaileak diren ETEak	
	Barne-gaitasunekin berritzen diren ETEak	Ezabatua.
	Beste batzuekin elkarlanean ari diren ETE berritzaileak	2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
	Elkarlan publiko-pribatua landutako argitalpen zientifikoak	
	PTC patenteen eskaerak	
	EBko marka komertzialen eskaerak	
EBko diseinu-eskaerak		
Inpaktuak	Enplegua jakintza intentsiboko sektoreetan	
	Enplegua ETE berritzaileetan	Berria. 2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
	Produktu berrien salmentak ETEetan	2018ko Osloko Eskuliburura egokituta.
	Isuriak manufaktura-industrian	Berria.

Adierazle berriak | Ezabatutako adierazleak | Errotik aldatutako adierazleak

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019 eta 2021.

Metodologia-aldaketak 2019ko RISaren aldean (II)

Beste aldaketa nabarmenetako bat berrikuntza-kategorietako mugak aldatzea izan da: orain zorrotzagoak dira eta azpikategorietan banatuta daude. Halaber, azpimarratu behar da EBren batezbestekoak Erresuma Batua kanpoan utzi duela lehen aldiz. Bestalde, faktore zuzentzailean aldaketak espero baziren ere, ez da egin aldaketarik ez kalkulu-metodologian, ez faktorearen aplikazioan, eta hori mesedegarria izan zaio edizio honetan Euskadiren egoerari.


Berrikuntza-kategorietako muga berriak

Kategoriak	RIS 2019	RIS 2021
Berrikuntzaren arloan liderrak	Nota > EB %120	Nota > EB %125
Berrikuntza-maila handia	EB % 90 < Nota < EB % 120	EB %100% < Nota < EB %125
Berrikuntza-maila ertaina	EB % 50 < Nota < EB % 90	EB %70 < Nota < EB %100
Berrikuntza arloan hazkunde bidean <i>Lehen berrikuntza apalekoak</i>	Nota < EB % 50	Nota < EB % 70

Espainiar Estatuari aplikatutako faktore zuzentzaileak

RIS 2009	RIS 2010	RIS 2012	RIS 2014	RIS 2016	RIS 2017	RIS 2019	RIS 2021
Ez dago	Ez dago	Ez dago	Ez dago	Ez dago	0,941	0,846	1,017

Euskadiren egoera RIS 2019an



(1) Zentro Teknologikoak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak enpresen sektorearen barne daude, pribatuak direlako. Aldiz, Europan parekoak diren zentro gehienak Administrazio Publikoen sektorearen barne daude.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2021.



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

WEB

www.innobasque.eus